

Jarduerei buruzko 2008ko
Memoria

Aurkibidea

Aurkezpena

Antolaketa

Araudia

Kontratuak

Egitasmoak

Obrak

Obra Lantaldea

Zerbitzuak

Arteak

Planeamendua.

Baimenak

Lurzoruaren eta etxebizitzaren gestioa

Ingurumena


Aurkezpena


Basauriko Udaleko Lurralde Politikako Arloaren jardueri buruzko urteroko lehen Memoria hau 2008ko ekitaldikoa da, hala ere, 2007ko bigarren seihilekoa ere barne hartzen du, Udal Korporazioaren aldaketa gertatu baitzen orduan.


Horrekin, egiten dugunaren berri emateko asmoa daukagu, eta hori hobetzeko eta konprometitzeko helburuarekin.



Antolakuntza







Araudia

Udal babeseko etxebizitza tasatuen ordenantza

Etxebizitzaren babes publikoaren udal erregulazioak hori definitzea du helburu, horren sustapenerako moduak, zertarako izango diren, gehienezko neurria, prezioa eta norentzat izango diren, eta nola babestutako etxebizitzaren baldintza bete beharko duten higiezinaren balio-bizitza mantentzen den bitartean, eta mugak ipintzen dizkio bigarren eta ondorengo transmisioei -lehentasunezko eta atzera eskuratzeko eskubidea eta atzera eskuratzeko ituna Udalaren mesedetan.

Helburua babestutako etxebizitzaren tipologia dibertsifikatzea da, eta etxebizitza librearen eta babes ofizialekoaren artean segmentu bat sortzea, gizartearen eskariei erantzun ahal izateko, eta babes publikoko etxebizitzaren sustapenean Udala beste agente bat gehiago izateko bidea eskaintzea.

Erabilera aldatzeko baimenari dagokion ordenantza

Ordenantza honen aldaketarekin honako hau izan da bilatu dena, gutxiegi erabili edo erabilera zehatzik gabeko lokalak egokitzeko erraztasunak eman etxebizitzetan bihurtzeko, eta modu horretan, udalerrian dagoen egoitza-lurzorua eskasiaren aurrean alternatiba bat finkatu, eta horrez gain, eta bereziki, espekulaziozko egoerak saihestu, eta kalitatezko etxebizitza izateko aukerak eskaini merkatu libreko prezioa baino txikiagoan, erosteko ahalmen txikia duen herritar sektore horrentzat.

Horrela, Udalak erabileraren aldaketa baimentzeko jarritako baldintzen artean, salmentazko gehienezko prezioa jartzea galdatzen du, eta etxebizitza bihurtzen diren lokalei dagokienez, lehentasunezko eta atzera eskuratzeko eskubidea eratzea. Horiek Udal Etxebizitza Tasatuen kalifikazioa izango dute.

Hirigintzako baimenen espedienteetan aurkeztu beharreko dokumentuei dagokien ordenantza

Ordenantza honen aldaketarekin lortu nahi den helburua da, gardentasun handiagoa eta Administrazioaren aurrean herritarrek segurtasun juridiko handiagoa izatea, eta baita, horiek dituzten eskubide eta obligazioak aurretik ezagutzea, hirigintzako baimenen espedienteak tramitatzeko prozedura guztietan.

Halaber, prozedurako tramiteak hobetzeari eta errazteari bultzada bat eman diogu.

Jakinarazitako jardueren prozedurari buruzko ordenantza

Ordenantza honek administrazio-prozedurak dinamizatzea du helburu, eta horretarako, baimena lortzeko beharra aurretiazko jakinarazpenagatik ordezkatzan du, eta hori normalizatutako dokumentuan egiten da, administrazioaren zenbait kontroletarako direnak, horiek obrekin, irekitze eta funtzionamenduko baimenekin (titularraren aldaketa edo jardueraren aldaketa) zerikusia dutenean, hala nola, bide publikoaren okupazioa, aparkamenduko plakak edo merkataritzako erroterak jartzea.

Arrazoirik gabeko edo neurrigabeko eragozpenak murriztu nahi dira, eta aurretiazko baimena jakinarazpen arduratsu baten bidez ordezkatu.

Modu horretan, leihatila bakarra eratzeko urrats bat gehiago eman dugu.





Kontratuak

Prozedura ireki bidez eta prozedura hitzartu bidez tramitatutako kontratuak

2007ko seihilekoa

Obrak	13	1.015.444 €
Zerbitzuak	11	4.426.774 €
Hornidurak	11	386.051 €

2008ko ekitaldia

Obrak	30	10.651.266 €
Zerbitzuak	46	9.023.000 €
Hornidurak	18	386.051 €

Kontratu txikiak

2007ko seihilekoa 554.553,95 €

2008 ekitaldia


Zerbitzu kontratuak

Udal artxibategiaren gestioa	161.500 €
Musika Eskolaren gestioa	444.000 €
Udaletxearen sarrerako kontrola ezartzea	394.882 €
Etxez etxeko laguntzaren zerbitzua	3.800.000 €

Horniduren kontratuak

Iturgintzako materiala	94.000 €
Material elektrikoa	160.000 €
Burdingegiko materiala	73.000 €
Eraikuntzako materiala	64.000 €





Egitasmoak


Zubi Berria Artunduagan

Axular kalea hobetzea

Hiri igogailuak

Lope de Vega HI-ko aparkamendua

Ibai ertzeko pasealekua



San Migeleko Gizarte Etxea:

Hodi-biltzailea Pozokoetxen

Hernán Cortés auzunea berriro urbanizatzea

Oinezkoen ibilbidea eta bizikleta erreia San Migelen

Hegoa kalean espaloiak berritzea

Kale Nagusiaren eta Antoniol Truebaren arteko pasaguneko arrapala

Taberna Nagusiaren gaikuntza



Hizkuntza eskola.

Bentako Plazaren urbanizazioa

Kultur Etxeko fatxadak birgaitzea

Erabilera askotarako Eraikina

Igogailuen aurre-proiektua eta traba arkitektonikoa kentzea
Fleming Doktorearen eta Zuloaga Pintorearen kaleetan

Espaloia eraikitzea Larrazabal kalean

San Fausto Plazan, baranda beritzea

Aparkamendua Karmelo Torre kalean

Gernika, Abaroa eta Ramon y Kareaga kaleetan espaloiak berritzea

Aparkamendua Karmelo Torre kalean

Bide-zoru eta espaloiak berritzea

Asfaltozko zoladura konpontzea Uriarteko bidean

Aparkamendua Kale Nagusia-Antonio Fernandez eta Kale Nagusia-Uribarrin

Espaloiak berritzea Elkano kalean

San Fausto kalea berritzea

Baranda San Migelen

Espaloiak berritzea Uribarri kalean

Obrak



Urbi Institutuaren eremua urbanizatzea	355.050 €
--	-----------

Nekazarien plaza eraberritzea San Migelen	297.511 €
---	-----------

Bide-zoru eta espaloiak berritzea Azbarrenen	363.000 €
---	------------------

Segurtasun eta Larrialditako udal zerbitzuen egoitza eraikitzea	4.366.547 €
---	-------------

Pozokoetxeko hodi-biltzailea berritzea, I. Fasea	1.760.384 €
---	--------------------

Udaletxea zati batean eraberritzea	791.382 €
------------------------------------	-----------

Harmailak kendu eta espaloiak berritzea Basozelai kalean	200.494 €
--	-----------

Espaloia Zabalandi auzoan	55.757 €
Argiteria erdialdean	99.044 €
Argiteria eta altzariak oinezkoen ibilbideetan	498.689 €
Espaloiak eraberritzea Urbi kalean	559.077 €



Espaloiak eraberritzea Urbi kale barruan	89.153 €
Espaloiak eraberritzea Arizko dorretxean	393.718 €
Oinezkoen ibilbideak eraberritzea PERCO 8	693.782 €
Aparkamendua eta trafikoa	250.000 €
Bide-zorua eraberritzea Kale Nagusiko kalezuloan	109.980 €
Informazioko seinaleztapena hobetzea	66.677 €
Arizko Ikastola estaltzea	61.289 €
Saneamendua Uriarte eta Lapatzan	425. 591 €
Saneamendua Luzarre eta Finagan	213.327 €

Saneamendua Atxikorre iparraldean	185.541 €
Asfaltatzea Karmelo Torre, Larrazabal eta Autonomia kaleetan	329.414 €
Estalkia berritzea Kareaga Goikoa HHI-an	112.664 €
Zenbait kale asfaltatzea	273.742 €
Bentako aretoa eraberritzea Hizkuntza Eskolaren erabilerarako	126.425 €
Kultur Etxeko fatxada birgaitzea	288.719 €



Basozelaiko Futbol Zelaia urbanizatzea	71.729 €
Igogailua eta galdaren gela eraberritzea Egoitzan	118.798 €
Oinezkoen ibilbideak eraberritzea San Fauston	149.036 €
Espaloiak Elkano eta Uribarri kaleetan	159.209 €
Eguzki plakak jartzea Udaletxean	67.988 €

Beste zenbait obra

Hilerria handitzea

AE-ko lokalak egokitzea eta jai batzordea San Migelen

Bulegoak eta klimatizazioa Bidearten

Jarduerak Ikastetxe Publikoetan

Haurreskola San Migelen (obra amaiera eta ekipamendua)



Jubilatuen egoísta San Migelen (obra amaiera eta ekipamendua)

Pozokoetxeko Kultur Etxea (obra amaiera eta ekipamendua)

Zaharren egoitza (obra amaiera eta ekipamendua)

Eraberritzeak Kiroldegian

Babes Zibileko egoitzaren lokala gaitzea

Janarien Bankuko lokala gaitzea

Trabesak kendu eta bide berria eraikitzea Bizkotxalden

Eskailerak Manuela Egiguren kalean

Kutxatilak konpontzea Manuela Egiguren kalean

Irismen zaileko argiteriako guneak berritzea
Hernan Cortesen



Arrapala Francisco Perea kalean

Saneamenduko kanalizazio berria Aris-Euskotren
eremuan

Pasagunea ixtea RENFE trenbide azpian

Oinezkoen eremuko argiteria Basozelain

Arrapala Leon kaleko 7an

Kareaga Goikoa eta Kale Nagusi kantoiko
seinaleztapena

Argiteria gehitzea Abaroa kalean

Abiadura murriztaileak Iruaretxetan

Seinaleztapena San Migelen

Argi guneak berritzea erdialdeko kaleetan

Seinaleztapena Artunduagan

Nerbioi Ibai ondoko pasealekuko argiteria

Argiteria oinezkoen pasealekuetan

Urbanizazioko erremateak Arizgoiti Plazan

Espaloiarene urbanizazioa Zabalandi auzoan

Hodi-biltzailearen eraberritzea Menendez y Pelayo
zeharkalean

Hiri-seinaleztapena kale desberdinetan

Karmelo Torreko anbulatorioko sarrera konpontzea

Argiak aldatu eta gehitu oinezkoen eremuetan

Argiteria Kale Nagusia eta Ibaigane kalearen arteko
eskaileratan

Argiteria gehitzea HII ikastetxe inguruan

Arrapala aldatzea Leon kalean

Miradoreetako 2.2 koadroko lerroak aldatzea

Edukinontzien seinaleztapen horizontala

Beste jarduera batzuk

Jubilatuen egonlekura sarrera berria Basozelaiko Gizarte Etxean

Itxitura eraberritu eta hobetzea Pasabolo bolatokian

Argiteriako dorreetan bizitza-lerroak jartzea Artunduagako Kiroldegian

Berriz zoladura jartzea Ate Zabalik eta Manuela Egigurenen lokaletan

Eskaileretako igogailu hidraulikoa aldatzea Pozokoetxeko jubilatuen egonlekuan

Bidearteko bulegoetan leihoak aldatzea

Behartutako aireztatzea jartzea Basozelai eta Arizgoitiko Egonlekuetan

Eguzki-itxitura Arteagoitiko labeetan

Aparkamendua Sarratun, Ikastolaren ondoan

Koadro eta zirkuituak eraberritzea aginte-zentroan
Ibaigane kalean

Itxitura Iruaretxetan haztegia jartzeko


Udal saneamenduaren inbentarioa

Obra Lantaldea

Jarduerak bide publikoan

Batez ere, espaloietan eta galtzadetan egiten diren konponketak izaten dira (bide-zuloak, baldosa apurtuak edo solteak, ibilgailuek egindako kalteak...), hiri-altzarien mantentzea (mugarriak, eserlekuak, barandak, paperontziak, parke eta berdeguneetako elementu propioak...), eta udal zerbitzuen mantentzea (argiteria, iturgintza eta saneamendua).


BIDE PUBLIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK GREMIOEN ARABERA (3.766)




Udal eraikinetan egindako ekintzak.

Udal eraikinak mantentze barruan, udal eraikinak, lokalak eta pisuak sartzen dira, eta baita ere, ikastetxeak, horien mantentze zeregina udalaren erantzukizuna baita.

ERAIKIN PUBLIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK GREMIOEN ARABERA (901)




IKASTETXEETAKO JARDUERAK GREMIOEN ARABERA (336)




- IGELTSEROTZA
- ITURGINTZA
- ELEKTRIZITATEA
- PINTURA
- ERREMENTARITZA
- ZURGINTZA
- LORAZAINTZA

JARDUERA GUZTIAK IKASTETXEEN ARABERA (366)




- LOPE /CALDERON
- ETXEGARAI
- GAZTELU-HAURRESKOLA
- KAREAGA GOIKOA
- VELAZQUEZ
- ARIZKO IKASTOLA
- SOFIA TARAMONA
- EPA - CIPEB

Beste jarduera batzuk



Laburtuz





Zerbitzuak

Hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzua edukinontziekin ezartzea

Kale garbiketa, estolda-zuloen mantentzea eta horiekin lotutako zerbitzuak

Eraikin publikoen garbiketa eta desinfekzioa

Parke eta lorategien zainketa

Ezponden mantentzea.

Haur-jolasen mantentzea


Berokuntzako eta ur bero sanitarioko instalazioen mantentzea

Komunikazioen zerbitzua

Tamaina handikoen bilketa

Hiri-altzariak

Artea



Irrintzia airean
Mikel Varas

Muxua


Jesús Lizaso



Hitza

Miguel Angel Antolín





Planeamendua

Egiturazko Planeamendua

HAPO-aren aldaketa puntuala, B/Kalero-Basozelai” Banaketa Arloko 06 EU-arena, Kareaga Behekoa kaleko 14. zenbakiarekin seinalatutako higiezinan jasandako kalteei urgentziazko izaerarekin konponbidea eman ahal izateko, ezbehar baten ondorioz hondamendian dagoela deklaratu baita.

HAPO-aren aldaketa, “B/Kalero-Basozelai” Banaketa Eremuko 08 EU-koa, euskarri urbanistikoa emateko EU-an aprobetxamendua areagotzeki, modu horretan, hitzarmenean hartutako udal konpromisoak beteko dira, Udal honen, Construcciones Azkuenaga SL enpresaren eta horren etxebizitzak erosi zituztenen artean hartutakoak, eta guzti hori, aipatu aldean artean sortu zen auzi bideko gatazka judizialari konpontze aldera.

HAPO-ren aldaketa puntuala, San Fausto-Pozokoetxe eta Lapatza Arloak. (Behin Behineko onespena eta COTPVra bidaltzea), herriko gune neuralgikoa herri-erabilerarako berreskuratzeko, Pozokoetxe Maniabrako Trenbidea Lapatza auzora lekualdatuta, hori guztia Administrazio honen, ADIFen eta Bilbao Ria 2000 artean sinatutako Hitzarmena betetzeko.

Planeamendu zehaztua

Hirigintzako Arauen aldaketa puntuala, eremu industrialetan ostatu erabilera ahalbideratzeko, behin eremu industrialean, instalazio mota horren beharra nabarmendu denean.

Hirigintzako Arauen aldaketa, Irismena Sustatzeko Baldintza Orokorrak barne sartzeko, irismena ahalbideratzeko bai oin berriko egoitzazko eraikinetan bai errehabilitatutakoetan.

Hirigintzako arauen aldaketa puntuala. Zorutik sabairako Koefizientea neurtzeko modua. 7.1.12 artikulua. Horren helburua eraikitako m².aren ratioa gehitzea da, BEP-eko etxebizitza bakoitzeko, eta horretarako ez dira kontuan hartuko, sestra azpiko trastelekuak, instalazio-gelak edo antzekoak, edo baimendutako azken solairutik gora daudenak.

Hirigintzako arauen aldaketa puntuala. D/CD Basconia Eremuaren gestio-sistema, modu horretan, udalaren hirigintzako araudia Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Departamenduarekin, Eremu horretarako, hitzartutako konpromisoetara egokitze helburuz.

Hirigintzako arauen aldaketa puntuala. A/Ariz-Benta Banaketa Arloko A-2 sistematikoa ez den jardura. Horren helburua da, Jose Garai kalean dagoen eraikinean, Antonio Trueba kalearen kantoian, solairu gehigarri bat eraikitzea, beste hirigintzako parametroak aldatu gabe, ingurunean horren mihizadura hobetzeko helburuz.

Hirigintzako arauen aldaketa, espazio libre eta berdeguneetan, sestra azpiko garajeak. 6.3.57.2 eta 8.2.1.3. artikulua. Udalerraren orografia berezia kontuan izanda, pendizean edo hegian dauden titularitate publikoko espazio libre eta berdeguneetan aparkamenduak dituzten eraikinen eraikuntza ahalbideratu nahi da, zeren eta horren sestrak izaera publikoa izango baitu.

Garapeneko planeamendua

A/Ariz-Benta Banaketa Arloko EU 24aren Zehaztapen Azterketa. Lortu nahi dena da lerrokadurak eta sestrak definitzea, egoitzazko bloke berriak kokatzeko, sotoan 5 metroko erretiratzea eta sestraren gainean 15 metroko erretiratzea, Nerbioi ibaiari dagokionez, errespetatuz.

A/Ariz-Benta Banaketa Arloaren 09 AA Zehaztapen Azterketaren onespena. Horren helburua Pozokoetxen etxebizitza blokeko lerrokadurak eta behereak definitzea da, eta Zumalakarregi eta Pozokoetxe kaleen elkargunean plaza bat ezartzea.

D/CD Basconia Eremuaren Zehaztapen Azterketa. Etxebizitzan bi blokeetako lerrokadurak eta behereak definitzen dira, horietako bat U formakoa da eta bestea bloke lineala, modu horretan, eraikuntza-sakonera definitu ahal izateko eta arauzko alderdia zehazteko, U forma duen blokean teilatupe bat ezarriz.

San Migel Mendebaldeko SR-1 Plan Partziala 2/2006 Legera eta Behin-betiko Onespenari dagokion Testu Bateria eguneratu eta egokitzea. Dokumentuak antolamendua definitzen du, HAPO-an ezarritako parametroak errespetatze bidetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzako Legean ezarritako estandarrak betetze bidetik.

HAPO-aren Azbarreneko SR-7ari dagokion Aldaketa Puntualaren Testu Bateria. FEVE-ren eta sustapen Ministerioaren aurrean gestioak eta tramitazioak egitea, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako baldintza bete ahal izateko, SR-7- Azbarren egitasmoan aldaketa puntualaren behin-betiko onespenean.

Baimenak

3	Obra handiak etxebizitzetan
	Obra handiak industrian
4	Obren hasiera
	Obra nagusiaren amaiera
	Erabilera-aldaketak
13	Lehen erabilera
14	Sailkatutako irekitzeak
80	Sailkatu gabeko irekitzeak
28	Igogailuak instalatzea

26 Igogailuen obra amaitzea

Eraikin industrialen eraispena

	Egoitzazko eraikinen eraispena
	Hirigintzako kontsultak
8	Obra txikiak
27.	Egikaritzeko aginduak
	Jakinarazitako jarduerak
	Gainera...
	txosten teknikoak, ikuskapenak, balorazioak



Lurzoru eta etxebizitzaren kudeaketa

Desjabetzeak

Saneamenduko hodi-biltzailea egitea Atxikorren, Finagan eta Brisketan.

Saneamenduko hodi-biltzailearen proiektua Uriarten eta Lapatzan.

Bide-zoru eta espaloiak berritzeko proiektua Azbarrenen

Hilerria handitzea San Migelen

Lurzoruaren udal ondarea

Azbarreneko 17 zenbakiko etxebizitza eskuratzea. Prezioa: 47.809 €.

Gernika kaleko 46 zenbakiko etxebizitza eskuratzea. Prezioa: 50.740 €

Eusko Jaurlaritzari partzelak saltzea Sarratun. Prezioa: 4.047.747 €.

Hirigintza-hitzarmenak

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamenduarekin lankidetzako hitzarmena, babestutako 96 etxebizitza eta 40 etxebizitza sozial sustatzeko Basozelain.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamenduarekin lankidetzako hitzarmena, babestutako 178 etxebizitza eta 90 etxebizitza sozial sustatzeko eta 77 etxebizitza libre Sarratun.

Ingurumena



Agenda 21aren toki-ekintzako planaren gestioa

Urtero parte hartzen da, Toki Agenda 21eko Ebaluazio eta Jarraipeneko Programan, hori Udalsarea 21ak bultzatzen du. 2008ko abenduan eman zitzaien hasiera hirugarren edizioari dagozkien lanei.

Tokiko Ekintza Planaren ezarpen mailari dagokion urteko ebaluazioa.

Arlo desberdinetako ekintzen egikaritze mailari dagokion urteko ebaluazioa, Tokiko ekintza-planean jasotakoena. 2007an, ezarpen-maila %30ekoa zen, eta 55 ekintza zeuden hasteke, 12 beteta eta 62 egiten ari ziren.

Basauriko Iraunkortasuneko Adierazleen Sistema eguneratzea

Iraunkortasuneko Toki Adierazleen urteko eguneratzea. 12 Adierazle Komunen ondorioak dagokion txostenean agertzea, hori 2008ko abenduan argitaratu zen Toki Agenda 21eko web orrian (www.basauri.net/agenda).



Administrazioaren ingurumen-portaera hobetzea

Plangintza orokorra

Hasierako proposamena prestatu da, ildo nagusiekin, udal administrazioaren portaera hobetzeko ingurumeneko gaitan, eta beste zenbait ingurumariekin batera, kontratazio berdearekin zerikusia duten jarduerak sartu dira.

Zenbait zehaztapen praktikan jarri dira, eraginkortasun energetikoari, energia berriztagarriei eta uraren aurrezkiari dagozkionak.

Eraginkortasun energetikoa/Energia berriztagarriak

Eguzki instalazioak udal eraikinetan ezartzeko bideragarritasunari buruzko azterketa, hori EVE erakundeak egin zuen 2007ko urrian, modu horretan, eguzki energia termiko eta/edo fotovoltaikoko sistemak zein udal instalazio eta eraikinetan diren bideragarri jakiteko.

Eguzki energia jasotzeko sistema termikoa eta fotovoltaikoa instalatzea, udal eraikinetan. Aurreko azterketaren emaitza bezala, instalazio bat funtzionamenduan jartzea erabakitzen da ACS ekoizteko helburuz “Etxe Maitia” zaharren egoitzan, eta baita ere, 10 KW-ko potentzia nominala duen elektrizitatea ekoizteko bi sistema. Horietako bat Udaletxean jarriko da, eta bestea Calderon Ikastetxean.

Hasieran, instalazio horiek Energiaren Euskal Erakundearekin hitzarmen baten bidez egin nahi izan ziren, baina azkenean ezin izan zen hori formalizatu. Horregatik, baliabide propioekin egin behar izan dira, eta horien kontratazioa urteko azken hiruhilekoan hasi da. Obrak 2009an amaituko dira.

Energia-eraginkortasunaren azterketa Artunduagako Kiroldegian Energiaren Euskal Erakundearekin Artunduagako kiroldegiko instalazio termikoak eta argiteriakoak aztertzeke kontratua egin da, horien eraginkortasuna ebaluatu, eta beharrezko hobekuntzak proposatzeko. Azterketa % 75ean subentzionatua izan da.

KUE erakundeak azterketan proposatu diren zenbait neurri abian jarri dira, zehazki, fakturaren optimizazioa (ekonomikoki tarifa faboragarriagoen epera atxiki gaitezen) eta argiteriako ekipoen ordezkapena.

KUE erakundean hobekuntzak egin dira energiari dagokionez, 27.000 eurokoak, eta argiteria konbentzionaleko ekipoa, energiaren erabileran eraginkortasun handiagokoak diren ekipoen bidez, ordezkatu dira. Goian adierazitako azterketak proposatutakori egin zaion ordezkatzeko gehigarria da hori. Baita ere, igerilekuko zenbait dutxetako ur-nahasketarako sistema aldatu zen, ur beroaren kontsumoa murriztu, eta Legionella prebenitzeko.



Ura aurreztea

Ura aurrezteko gailuak jartzea Lope de Vega (Calderon eraikina) eta Velazquez ikastetxeetan.

Kanil, dutxa eta andelentzat aplikagarri diren gailuak instalatu dira, uraren kontsumoa murrizteko helburuz, baina erabiltzailearen erosotasunari eragin gabe. Hasierako esperientzia bat da, eta aurreko eta ondorengo kontsumoak erkatuko dira, eta emango diren emaitzen arabera, beste eraikinetara pixkana-pixkana zabaldu daitekeen baloratuko da.

Kontsumo handiko instalazioak zirelako aukeratu ziren bi ikastetxe horiek, kontrolatu gabeko kontsumoekin eta hezkuntza-balioa zuten instalazioak (bi ikastetxeak Eskola Agenda 21ean parte hartzen dute, eta 2008-2009 ikasturterako gaia ura izango da).

Ingurumeneko aldagarria hirigintzako jardueran eta kontratazioan barne hartzea

Ordenantzen aldaketan parte hartzea. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinei buruzko proposamenak egitea, eta baita, ingurumen-eraginaren ebaluaziorako prozedurei buruzkoak, energia-eraginkortasunaren egiaztagiriei buruzkoak, eta isurpenei buruzkoak.

Ingurumeneko irizpideak barne hartzeko proposamena, hondakinak jasotzerakoan.



Mugikortasun iraunkorra bultzatzea Garraio publikoa

“Garraio publikoaren alternatibak aztertzea, Basauriko udalerrian” lana egin da, San Migel Metro Bilbaorekin lotzeko aukera desberdinak ebaluatzeko helburuz, anezkaren bidez.

Hori kontratatzeko baldintza teknikoen agiria prestatu da, eta bestalde, zenbait gestio egin dira beste erakundeetan.

Lurzoru industrialean, sailkatutako jardueren gestioari laguntza ematea

Irizpide teknikoen normalizazioa, ikuskapenean. Irizpide tekniko normalizatuak prestatu dira, sailkatutako jardueren neurri zuzentzaileak betetzen ote diren egiaztatzeko.

Lurzoru kutsatuen gaian, jarduteko dauden aukerak aztertu dira. Lurzoru kutsatuei buruzko arautegia aplikatzeko aukerak aztertu dira, hain zuzen, *lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 1/2005 Legearen* aurretik finkatutako kokapen industrialetan.

Ingurumeneko arautegiari egindako arau-hausteengatiko ikuskapenak.

Laguntza teknikoa Jarduera Baimena emateko prozeduretan, ingurumeneko edukia duten arazo zehatzak direnean.

Ingurumeneko Baimen Integratuaren menpe dauden proiektuak berrikusi egingo dira.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten kokalekuen inbentarioari dagozkion egiaztapenak.

Zarata

Ingurumeneko zaratari buruzko mapa. Basauriko ingurumen-zarataren mapa gai horri buruzko arautegi berrira egokitu da (*1367/2007 Errege Dekretua, horren bidez garatzen baita zarataren legea, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei, eta igorpen akustikoei dagokienez*). Zonifikazio akustikoa erabaki da jadanik.

Zarataren aurka jarduteko plana. Hasierako proposamen teknikotik abiatuta, egokitu egin dugu Basauriko Udaleko egitura, ahalbide eta helburuak kontuan izanda.

Kutsatutako lurzorua

Arteagoitiko Antzinako Labeak berreskuratzea. Proiektu bat idazteko lana kontratatu eta horri hasiera eman zaio, Arteagoitiko Antzinako Errausteko Labeak berreskuratzeke, kokapen horren etorkizuneko erabilera, eskualdeko Garbigunearen instalazioa izango dela aurreikusi da.

Lurzoruaren kalitatea ikertuko du IHOBE SA enpresak Lapatzako Poligono Industrialean. Beharrezko informazioa eman da Lapatza poligonoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamenduak aztertuko dituen 17 kokapenen artean barne hartzeko aukera egon dadin.

Ingurune naturala

Udal lursailak berriro bertako espeziekin basotzea Iruaretzetako ingurunean, Sagarrak Ekologista Elkartearen Ingurumeneko Boluntarioen Sarearekin elkarlanean jardunda. Udalak bere gain hartzen du aurretik sasiz garbitzeko, landareak ekartzeko eta landaketako azken lanak egiteko zeregina. 2008ko otsailean, 1500 m² gainean jardun da, eta abenduan 1750 m² gainean.

Telefonia mugikorreko geltoki-baseen errolda

Bitarteko propioekin Basaurin dauden geltoki-baseen errolda egin da, eta kontuan izan da kokapena, horiek kokatzen diren lurzoru mota, eta udal eta sektore baimenei dagokionez, zein den horien egoera.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

<i>Planetaren gainean, gure ekintzen bidezko eragin negatiboa ezin da murriztu, bertan bizi garen pertsonen portaera-ohiturak aldatzen ez baditugu.</i>

Komunikazio kanpaina Global Action Plan programarekin bat eginda. Etxean internet bidez jardutea, etxean ohitura aldatzeari buruzko ondorioak diren neurrian, horien gaineko eduki, gestio, komunikazio, informazio, ebaluazio eta argitalpenak banatzeko euskarri gisa erabiltzea, garapen iraunkorrakoaren eredu bat erdiesteko asmoz.

Mugikortasun Jasangarriaren Europar Astea (irailaren 16tik 22ra; 2007an eta 2008an). Ekintzen kontratazioa eta antolaketa, eta horiek egin aurretikako publizitatea.

Toki Agenda 21ari dedikatutako web orria berriro diseinatu (www.basauri.net/agenda), bistarako erakargarriago egiteko, eta gainera, minusbaliatuentzat erabilgarri izateko. **2009an, edukien gestore bat jartzea aurreikusita dago, Informazioko Teknologia udal web orrirako aurreikusi dituen beste jarduerak batzuekin batera.**

Informazio, aholkularitza eta txostenak egiteko eskarien ebazpena

Herritarrek eta/edo Udaletik at dauden erakundeek egindako eskarien ebazpena. 2008 urtean, telefonia mugikorreko toki-baseari buruzko 3 informazio eskari erabaki dira (osasunaren gainean izan ditzakeen ondorioak eta baimenak), eta beste bat zaratari buruzkoa. 2007 urtean, 11 informazio eskariri erantzun zitzaien, edateko uraren kalitateari, zaraten gestioari, eta airearen kalitateari buruzkoak

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei buruzko txostenak eta egiaztapenak, horiei buruzko informazioa eta barne-aholkularitza.



Ingurumen Hezkuntza

Eskolako agenda 21
Ingurumen Hezkuntzako Programa

Urtero bezala, bi programak kontratatu eta koordinatu dira. Parte hartzen duten ikastetxeak eta ikasleak honako hauek dira:

IKASTURTEA	INGURUMEN HEZKUNTZARI BURUZKO PROGRAMA		ESKOLAKO AGENDA 21	
	PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEAK	IKASLEAK GUZTIRA	PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEAK	IKASLEAK GUZTIRA
2007 - 2008	7	965	5	2185
2008 - 2009	5	886	6	2642

Eskolentzat pentsatuta, berei zuzendutako jarduera gehigarri batzuk eskaini zaizkie, honako hauek:

- “*Tierra, la película de nuestro planeta*” filmaren proiektzioa, goi-zikloko ikasleei zuzenduta, Mugikortasun iraunkorraren Europar Asteko jardueren barruan (2008ko iraila) 3 emanaldi eskaini ziren, eta horietara 5 ikastetxeko 310 ikasle eta 5 irakasle joan ziren.

- “*Jolas eta zilarrezko txartela*” teatro lana, 2008ko abenduko bigarren astean, kontsumo erantzuleari eta hondakinen sorrerari buruz lehen hezkuntzako ikasleak sentsibilizatzeko asmotan, Gabonak hain gertu dauden garai horretan. 6 ikastetxeko 590 ikaslek parte hartu zuen.

Ingurumen eraginaren ebaluazioa eta baterako ebaluazioa (eia – ecia)

Aurretiazko kontsulten tramiteetan txostenak egitea, eta baita ere, azpiegiturei buruzko EIA/ECIA prozeduretako alegazioen tramiteetan, eta Basauri eragiten dioten plan eta programen tramiteetan (4 tramite 2008an eta 3 2007an).

Besteak



Udaltalde 21 Nerbioi – Ibaizabal erakundean sartzeari Udaltalde 21 Nerbioi – Ibaizabal erakundean sartzeko lan-saioei hasiera ematea, Iraunkortasunaren Eskualdeko Bulego baten marko barruan. Hori guztia Auzolan programaren laguntzarekin, IHOBE erakundeak finantzatu eta koordinatua, ekintza berritzaileak ezartzeko helburuz, zeinak geroan esportagarriak izan daitezkeen beste udalerri edo eskualdeko erakunde batzuetara.

Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko –Udalsarea 21- Batzorde Teknikoan parte hartzea.

Ingurumen eta iraunkortasun gaietan, dirulaguntzak eskatu eta zuritu beste erakundeetan. Eskaria egiteko dokumentazioa prestatu, eta ondoren, hurrengo laguntzak zuritu:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamenduak toki-erakundeei ematen dizkien laguntzak, iraunkortasuna bultzatzeko ekintzak egiteko helburuz (urteroko alditasuna)
- Udalsarea 21ean parte hartu, sentsibilizazio eta komunikazioari buruzko eranskina (urteroko alditasuna)
- EVE – IDAE programa, Energia Eraginkortasuna bilatzeko Inbertsioei ematen zaizkien Laguntza Publikoak, E-4ko 2005-2007 Ekintza Planaren barruan (Artunduagako kiroldegiko energia eraginkortasunari buruzko azterketa finantzatzeko).